Ez nuen beste beldurrik... Egin ongia eta horra nola iku-siak giren ! etxeak prozio apalenean erosten ditudala ? Baino, nongo prezioari so egiten dute ? Nik segurik, konzientzia trankil daukat ; eta askenik erosi dutan etxe hori, segur izaiton ahal zirezte, nehork ez zuela hoin-bestea pagatuko. Nehork. Eta Garraldakoak berak kontekko ziren nere eskeintzaz ; Karitate egiteko eman baitiotet etxaldeak balio zuen baino gohiago ere. Baino orain ohartzen naiz karitate egitea ala jazko haizea berdintsu direla. Jeindea nitaz jelos da. Horra ; egia non den ! Jelos ! Eta nere beltzatzeko, zikintzoko, denak on zaizkote ; baina beren politika tzarrak ez ditu urrun crenamen ; hortaz segur izan ditela. Ho ; badakit bai, nere etsai errabiatuenak nortsu ditudun. Ez dira ainitz, baina jendea nahi dute nere kontra nuntarazi... nere ota nere idurikoen ; baizik eta guk laboari ttipiak chortzi nahi ditugula... Gozurrak, gozurrak jakatzen dituzte, gazte buru bero horiek. Zeren, gazteak ditut nere partida haundiak. Jakitate pitta bat bildu dutelakoan hor gaindi, uste dute denak badazkitela eta guk egin guziak nahi luzkete uzkaili... Gaixo trixteak ez bestear ! Ez dute zaharren errespeturik, ongi-egileen estinurik, ez dute lagun protsimoaren alderako anomadorik, deus, deus ; Jainkoak bera bazterrera uzten dute, bazterrera uztea bat da ; Jainkoak bera ukatzen dute ! Eta gero nahi zinukete zuek, horion erraneri segitu ? Jainkoak begira !

(eta Betibil ateratzen da)

#### KATALIN -BATITA

(Batita zutitzen da ota zorbaiti so gelditzen)

Batita Katalin Katalin ?

Katalin Zer da ?

Batita Ikusten duzu ? Ikusten duzu ?

Katalin Ez...

Batita Ai !

(oihu latz bat botatzen du eta burua bi eskuotan hartzen)

Katalin Baina zer duzu Batita ? Mintza zaite... Zer gertatzen zauzu ?...

Batita Aldunate, Aldunote, Aldunate (geldi) Aldunate ikusten dut...  
Baina ez dauka gehiago horri itxurarik ere... Aldunate !  
Eliza inguruko etxeak deseginak dira... Zenbait harri bat  
bestearen gainean, teilaturik ez... biderkak laparrek janak...  
Aldunate ! Etxe ohietako ate zaharretan giltzak dilindan da-  
gotzi baina nehorik ez ditu berriz baliatuko, nehor gehiago  
ez baita etxe horietan sartuko... Hilarriak ez dira nehon  
ageri edo izaitekotz, zoko batean, burdin herdoildu batzu  
ikusten ditut eta horiek ditazke lehen, hobi gainetan zauden  
kurutzeak... Eliza bera hetsi dute eta ate-gainean argi bat,  
argi gorri bat gau eta egun bizi dago, Jainkoaren lekukota-  
suna erakusteko Argitto gorri gorri horrek iduri luke hil  
bat boilatzen duela, hil bat edo herri guziko hilak, eta biz-  
kitartean biziaren argi nahi luke izan ! Urrunean, bizpahirur  
etxe haundi eta hoien itzulian, erenuak, erenuak eta oraino  
ere erenuak... Aldunate herria, diruzale nadarikatuek behin  
betiko suntsitu dute ! Eta horra orain Aldunate zer den :  
etxerik gabeko herri bat, gizonketa enazte gabeko herri bat,  
apezak berak ihes egin du eta dautzuet apez batek horritik  
lekuak husteko, azken beltza izan behar dela ! Gizonik,  
etxerik, arimarak gabeko herri batean, Jainkoa bera, zerta-  
rako ?

(eta Batita lurrera erortzen da, harrabots haundia eginez)

Aiaiaiaiai !

(Katalin seinatzen da)

Katalin Gaixo Batita... Zer duzu ? Zer gertatzen zauzu ? Ho, baina  
trenpu xartua da. Batita, Batita, Batita ! Ez ginuen beste  
beharragorik ! Baina, zer da, azken hatsetan ? Apez bat,  
apez bat, spezik badea ? Zer behar dut egin ? Batita, mintza  
zaite, mugi zaite... Ez da mintzatzon, ez da mugitzon.

Ai, ai, ai ! Non dira anezak ? Eta hiltzen balitz ?...  
Auzoak hor direnez ez dakit... Nohor ez dut ezagutzen...  
Mori oskatuko dut apez baten bila joaitea... Batita,  
Batita ! (Dulta labur batean buruan) Batita KATALIN !  
Katalin Non gira honen ? Katalin B'TITA !

Katalin Hemen gira ori...  
Batita Non honen ?  
Katalin Toki honek izenik ez dauka... Apez bat nahi zinuke ?  
Batita Apez bat ? Zendako ?  
Katalin Ez, ez horrela...  
Batita Baina, zer gortatu zaut ?  
Katalin Deus, deus.  
Batita Zer tenore da ?  
Katalin Jakiteak balio ote du ?  
Batita Egia. Egia haundia.  
Katalin Ez duzu beraz apezik nahi ?  
Batita Ez ! Orainokoan segurik ez.  
Katalin Hobe ! Hobe. Ez naki ke non diren ere eta...  
(Argiak itzal. Borriz pizten direnean, Betibil eta Gabriel agertzen dira)

#### BETIBIL - GABRIEL

Betibil Izena, nola duk ?  
Gabriel Gabriel.  
Betibil Gabriel... Eta zenbat urte ?  
Gabriel Hoge i ta bi.  
Betibil Hoge i ta bi urte... Nere semea izan hintazke...  
Gabriel Ez nukte nahi !  
Betibil Hori hihaurek ikus ! Baina, nere bigarren semeak hire adin bera dik.  
Gabriel Ontsa futitzen neiz ori, zure bigarren semearen adinaz...  
(Goldi)  
Betibil Hik onen dituk, gauza batzu kondatzen...  
Gabriel (Trufari eta boz eztzi batekin) Etxeak eta lurrik dituzula

crosten... turismoa gain gainetik fagoratzen...

Betibil Zer juhan zauk hiri ?

Gabriel Hortan da guzia !

Betibil Hortan da guzia ; hortan da guzia ! Bainha hogei ta bi urtetan biziaz zer jakin ditake ? Zer ?

Gabriel Hogei ta bi urtetan bizitzen ez dakiensk, deus ez du balio !

Betibil Bainha hogei ta bi urtetan haur bat haiz oraino...

Gabriel Zuro seneak bai, hogei ta bi urtetan haur batzu dira, baina haur aberatsak... aitak dirua nolazpeit bildu duelako. Gu ; familia xuneko seneak, hogei ta bi urtetan, langile batzu gira, guk, gure jakintza izpiaz eta kopetako izordiaz, baitkigu jada bizia zer den. Bainha xumeak izanikan ere, biziak ez gaitu izitzen, ez gaitu lotsatzen, eta ahal ditugun guziak eginen ditugu laborarien bizi noldea alda dadin ; gaur egun ikusten diren itsuskeria ahalgingarrisk ez diten sekulan berriz gerta !

Betibil Bainha zer diok ? Iduri likek ez haizela gohiago hiro buruaren jabo !

Gabriel Eta zu, hala zira ?

Betibil (eztiki) Nagok, ororen buru, zendako hirekin solastatzon naizen...

Gabriel Arrazoi duzu. Ez dut zu eta zutarretarik deus, deus idurikatzen ! Zu, frantses inportismoaren politika ustelari arrunt lotua baitzira !

Betibil Hi eta hi bezalakoak, Puttil zango aztalaz lehortu behar litazkek. Zeren, orotara, zenbat zirezte ?

Zenbat ? Guti. Aitor zak, arras guti... Eta zer nahi duzue ? Henengo jendea iratzararazi, mugiarazi, oldarazi ? Gaizo zozoak ! Henengo jendea ontsa bizi duk. Biziki ontsa eta bekean. Jainkoari esker. Eta hau izanen duk nere azken solasa. Hemendik aintzina, ez hadila sobora gezur jakatzen ar... Ez haiz berdin sinetsia izanen. Bestalde, ni eta ni bezalakoak, utzik trankil. Aditzen nauk ? Trankil ! Badakik zer erran

nahi dutan ? Hiru onetan he, hire onetan !

Gabriel Horra. Trankil utzi behar zintuztet beraz. Trankil, zuen joko tzarraren egitera. Trankil, gure etxe eta etxalde guzien erostera eta nor-nahiri saltzera ? Trankil, gure herritarreh, beren lurretik kasatzera ? Trankil, besteen bizkar, hilimiliklik aberastera ? Trankil, gure laborantzaren hiltzera ? Horiek guziak, Frantses Gobernuko gizon eta hemengo deputatuen bainenarekin gustu gustuan egiten dituzuela ? Zeren gezurra ote da gure baserrick gero ta gehiago husten ari direla ? Zeren, gezurra ote da, gazteek ez dutela laborantzari lotu nahi ota zergatik ? Zeren, gezurra ote da, kostaldean, hiru mila etxalde Paristar aberatsek erosiaik dituztela eta orain, zauri latz hori Euskal Herri barrera hedatzen ari dela ? Zeren, gezurra ote da, azken honar urte honetan, Kuberoko ohun eta berrogei ta honar etxalde hustu direla ? Ametsak eta gezurrak ote dira horiek guziak ?

Betibil Buro bero bat haiz, besterik ez !

Gabriel Aitortzen dut halere, horritar gcheinak baino argiagoa zirela.

Betibil Nik uste ! (fier)

Gabriel Bain zure jakitatea gaizki erabili duzu : lagunen eta herritarren argitzeko partez heietaz zerbitzatu zira ! Alta, gauza houndi eta ederrak egiten ahalko zinituzten gazte denboran beste mrede batera jokatu bazinezte... eta gu orain, ez ginen hoin behera izanon. Bain zuek ez duzue deusetan sinetsi, deusetan, diruan baizik !

Betibil Eta Jainkoan !

Gabriel Jaikoan sinestea gauza errexagoa da, gizonean eta gure Euskal Herrian sinestea baino. Funtsean ageri du, zuen zikoitzkeriak eta houndi-andhiak jana duzue zinuten bihotz izpia. Zuen begiek ez dute gehiago biziaren ederra eta zuzentasuna ikusten, baina bai diruaren indarra. Dirua, dirua, beti dirua, ezagutzen ditut nik bi sosengatik behin betiko behexi diren familiak ! Jainkoan sinetsi ? baina gizona chantzi... euskal kultura ukatu,

eta Herria lehen etorriari saldu ! Horra nolakoak zirezton zuck ! Sakulan pentsatu oto duzue zer kaltea egin duzuen gure populueri ? Sekulan pentsatu oto duzue zuen diru-goseak galdu zaituola eta galarazi zuen ondotik heldu direnak (Gabriel nintzo den denboran, Betibil arras hasarre dago) Zeren gure Herria hiltzen ari bade, hobendun lehenak, guaur gira, eta berezikizkiz zuek jonde xumearen xurgatzaileak eta arrotzen esku-nakilek ! Zuek bai, begiak hetserik bizi zireztenak, zuek, bester obatsi diruaz sekak bete dituzuenak, zuek, Pariseko eta gutarteko manatarieri "amen", "amen" beti "amen" erraiteen duzuena, zuek zirezte guri egina zaigun zorte hitsaren hobendun barkanengabeak !

(Betibil gaixtoonean, Gabriel-i buruz doa, jo nahi balu bezala eta inharrosaldi ona enaiten dio, ordu borean Apeza sartzen da.)

#### BETIBIL - GABRIEL - APEZA

- 
- Apeza Goldi, goldi, otoi goldi ! Zer gertatzen zaitzue ?  
Gabriel-i buruz) Ez haiz alalge gizon adinetako bati horrela oldartzeko ? Errespetua non ikasia duk ?
- Gabriel Zer derazazu zuk ? Horrek deut gainera jautzin !
- Betibil Hi haiz hasi !
- Gabriel Ni hasi ? Gezurra !
- Apeza Txo, txo, ezti zaitezte...
- Betibil Hi haiz hasi, hik daiztak ele tzarrak erran...
- Gabriel Nere hitzek zer zuten tzarrik ? Zer ? Funtseen, zure egitateak ez nau harritzen. Aberats guziena da hori. Zuen intresak indarkeriaz zeintzen dituzue, nola egin bestela ? Egiaren erraitea ez uzteko, zuk jo nauzu, beste batzuek, zuzentasunaren alde mintzatzen den jende langileari, pokiza igortzen dioten bezala ! Horra zuen demokrazia zer den, horra zuen libertatea ! Populuak beti ixil eta goldi egon behar, haundien makil ukaldiak ez baditu bildu nahi ! Baina, beste Herri batzuetan jada egin duten bezala, hasia dugun borrokok zuen nundua bertako deseginen du !

- Apeza Bainaz, zortaz duzue auzia ?
- Betibil Jaun erretora, jaun erretora, zuk bederon arrazoina zazu nutil zentzugabe hori... neuri zeinak nagusitzen ari zaizkit... Izan daitekeela ere horrelako gazte bihurririk !!! Izan daitekeela. Ez da posible, ez da posible.
- Apeza Zer erran diko ?
- Gabriel Norbaitek deitu zaitu ? Zer uste duzu ez girela guhaur aski haundi zorbait egiteko zuk sudurra sartu gabe ? Ala, Betibilen ttette zira ?
- Apeza Erradazu bada zer pasatzen den !
- Betibil Jaun erretora mintza zaite, larderia zazu nutil zirtzil hori...
- Gabriel Apezen larderia, larderia, horra horra beste gauza bat, gure herrietan, ozinsinettsizko kaltea egin duona !
- Betibil Bainaz Jaun Erretora mintza zaite beste orduz bezala... Badakizu zuk, gauzen behar bezala itzulikatzen... Eleketa artzen crakutsia dautzute... Mintza zaite...
- Gabriel (Eztiki eta Betibil crakutsiaz) Bai Jau erretora, erraiozu, gizon ona, plantakoa eta seriosa dela ! eta oroz gainetik girixtinoa... Ez da hala ? Igande guziznila libera emaiten ditu eskoan...
- Betibil Ago ixilik, hi !
- Gabriel Ixilduko naiz, eta utzikoz zaituztet bat eta bestea. Badakit bardin nortsu zirezten eta behar orduetan badakuzuela elgar sustengatzen... Agur beraz, agur !
- (Gabriel ezkerreko aldetik urrats haundiz kanpora abiatszen da baina ordu ~~h~~ berean Katalin eta Batita mintzatzen zaizkio. Betibil hasarre dago. Batita eta Katalin eloketa gora ariko direnean, Betibil eta apezaren jestuak ikusiko dira, mintzo balire bezala).

#### BATITA - KATALIN

Batita eta  
Katalin betan Gabriel, Gabriel, ez hadila joan ! Ago ixtant bat oraino ! Mintza hadi, mintza, erraiotek egia, egia osoa. Ai, zer nutikoa hi ! Bihotzean esperan-

rantza ezartzen daukuk ! Ez diazu sekulan gizon bat horrela solastatzen entzun... Jakin izan baginu guk, jakin izen baginu... ez gintien hain segur orain hemon izumen ! Gabriel, Gabriel, etor hadi gure ikustera, atea zabalik dagok. Etor hadi, etor otoi... Hitz eginen diazuk hik nahi bezenbat eta hazilaren hameikako iguzki sartze luze luze hura ikusteko partez... beharbada eta agian laster, iguzkia berriz agertzen ikusiko diazuk !... Gabriel, atoz gure etxera ! (Eta ateratzen da).

#### BETIBIL - APEZA

##### Apeza

Batera buru-beroa izan gabe, gauza bat erran daiteke : laborantzatik bizi direnen geroa arras iluna dela. Begira, gure herrian berean -alta ez da haundia- hogei ta hamar bat donado badira eta nonentoan ait'aria zaharreri kontre ahal bezala dagotzi ; baina zahar horiek hil-orduko, balkar-bakarrik geldituko direnean, orduan, ez da hara ez hunatik izanen... herritik joamen dira ! Joanon !

##### Betibil

Baina Jaun erretora, ez gira hortan oraino...

##### Apeza

Nahi baino lasterrago otorriko da oren latz hori. Konersant ttipiek ere ez zuten sekulan pentsatuko, super-narcés horiek hoin denbora gutiz eginen zioten kaltea. Ez zuten sinesten, ez dute sinetsi, ez dira bildu, ez dira mugitu eta orain beren saltegiak behar dituzte hetsi !... Gauza ber-bera gertatzen ari da gure herrietako laborantzari. Gauza ber-bera ! Eta nik, apez bezala, ttipien alde bermatu behar dut.

##### Betibil

Baina Jaun erretora, ez zaitela zu ere haurkeriak erraiten has. Gauzak ez dira zonbaitek nahi luketen bezain ongi, baina halere, halere, ikusi dugunaren aldean olinaleko urratza egina izan da. Eta laborari etxeak huston ari ba dira ez da gure falta, tresneriarena baizik ! Alabaina, hoinbeste tresna berrirekin pentze eta landetako landak, bai eta bestek, biziki lasterrago eta erre-xkingo eginak dira. Tresna berrick dira hobendum, ez eta gu. Gu, jende gaizo batzu gira...

Betita

Gaizo onak !

Katalin

Apeza

Tresneria hobendun... Bainan tresnen ibiltzeko bi manera ba dira : edo gizonak nonatzen du tresna edo tresnak *gizonez*. Eta nago gure herrietan ez duenez tresnak nonatzen, erran nahi baita laster bildu diruak. Zeren ez duzue begiratu ez eta begiratzen geroko beharreri, baina ahal bezenbat lotu zireste numentokoari. Horra zergatik zuen ondokoek ez dezaketen burutziarik egin, horra zergatik gure herri eta herrixkak hiltzera doatzin !

Betibil

Ez ote daukuzu niladiz errepikatu, "Gure Aita"-n ezarria den bezala : "Ehaguzu gaur, egungo ogia", edo "ez pentsa biharanunari" eta beste ainitz horrelako. Zergatik beraz, bat batean, erraiten dautazu ez naizela geroaz grinatu ?

Apeza

Ho, ho, poliliki, poliliki... Chartzen neiz Ebangelio sainduko erranen zure alde itzulikatzen badakizula. Kristok ez zuen hori erran nahi.

Betibil

Aizu jaun erreтора, gero ta joanago, badakizu zeri ohartzen naizen ?

Apeza

Zeri ?

Betibil

Apez bezenbat ebangelio badela !

Apeza

Alo, alo, Betibil jauna. Ez zaitelea eirera mintza, gauza seriosegiak dira horiek.

Betibil

Lehengo apezek bai, bazakiten zer nahi zuten... Heiek norbait ziren ! Bainan zuek ? Ez dakit ori... Fedea, zihaurek galarrazten duzue, zuen moda-berri eta aldaketein ! Bainan Jaun erreтора, jaun erreтора, ordrearen aldekoak zirezte zuek, bakea nahi duzue. Ez ote *gira* bakcan orain ? Noiz izan da Frantzia orain bezain gora ? (goldi) Ez dugu bazter nahasle beharrik...

Apeza

Bazter nahasleak ez baitira beti sinetsarazi daukuten lekuau...

Betibil

Ez ote dituzu bada ikusten laborariek ardietsi abantailak ? "Crédit" horrek denak salbatzen ditu... Bestalde, hor dituzte koperatibak, sindikatak, SAFER deitu batusak, laborantzako kontseilariek ; eskolatu nahi duenak

errextasun haundienak baditu. Etxe guzietan telebixta  
bada, eta orain, denek telefona ezartzen ari. Gure herrie-  
tan ez da problemarik, ez da problemarik alferrentzat  
baizik ! Beste guziak jalgi daitezke ! (Argiak ezti).

Batita Ez ginon alta alferrak...

Katalin Ez segur !

Batita Begira zazu nere kopetari, arroilaz betea da.

Katalin Begira zazu nere eskueri, ez dute gohiago esku itxurarik !

Betibil Agur jaun erretora.

(eta urrats haundiz ateratzen da).

Apeza Ez adiorik, Betibil Jauna.

(Apeza taularen ordira dator eta dio)

Apeza Populuak uste dirudunon aldokoa naizela, aberatsek aldiz  
ez begi onez ikusten... Mekila bi buruetarik atxik ote  
daiteko ? Hauxe bada kurutzea. (Zonbait urrats egiten  
ditu) Ez diagu zerua irabazirik ! (Eta biziki eneki ate-  
ratzen da. Argiak itzal. Berriz piztuko direnca, Gabriel  
agertzen da).

#### BATITA - KATALIN - GABRIEL

Gabriel Biziek ez banuite konprenitu nahi, hilbizieri mintzatuko  
naiz ! Heiek bai, sesituko dute nore erran-nahia eta ho-  
riotik sortuko da bizia.

(Batita eta Katalin-i buruz doa.)

Gabriel Errana nautzuen otorriko nintzala...

Batita Idurikatzen haitugun...

Katalin Jar hadi, egizak etxeau bezala.

Gabriel Milesker zuen ongi otorriaz...

Batita Gure bizia czagutzen duk...

Katalin Hangoak gintian, Aldunato Garraldakoak...

Batita Han sortuak, han biziak, han behar ginian hil. Bain...

Gabriel Hil, hil, zondoko daukazue beti hitz hori ahoan ? Hil.  
Ez naizherioaz nintzatzena otorria !

- Batita Gu, jada, hilak gaituk, bizirik ehortzi gaitiztek.
- Gabriel Badakit hori. Ez zirezte lehenak, ez eta zorigaitzez azkenak. (zutitzen da) baina desmasia hunek gelditu behar du eta guk zinez nahi baldin badugu, dudarik gabe geldiaraz dezakegu !
- Batita Nagok halere gure eta gure idurikoen zortea ez ote den hala-beharra... eta hala-beharretik ozin eskapa to...
- Gabriel Horra, horra boste gauza bat gure gogotik kendu behar gignukena. Sinetsarazi deukute hala-beharretik ez dela baster-tzen hal eta beraz gure zorigaitzak, guhurek ehortzen ditugu exil-exila, auzokoeri deus aipatu gabe, beldurrez eta nehor ez dadin gutaz urrikal ! Baina, abereak baino gutiago ote gira ? Zikoitzkeriak numaraino janak ote gaitu ? Zeren, hala-beharra ez da estakuru hits bat baizik, hala beharra gezur bat da !
- Batita Aise mintzo haiz bai hi... Zer egin ditaike bestela ?
- Gabriel Zer egin ? Orain arte ditugun buruzagiek ez dute gauza bat baizik ikusten : dirua bil, dirua bil eta zuzokoak leherenginik ore bardin zaiote eta frangotan heientzat probetxu.
- Katalin Guk segurik ez diaguk besterik ezagutu.
- Gabriel Ikusten duzue politika horrek nora erenan zaituzten, nora erenan gaituen eta gero ta lasterrago erenanen. Politika hori ustela da. Politika hori uzkaili behar da lchen bai lehen !
- Batita Uzkaili, uzkaili, bai baina nola ?
- Katalin Nehor ez da nenturatuko horrelako gauza baten egitera. (Gabriel-i buruz) Ametsak dituk horiek, ametsak, labo-raria, sobera berezkorra duk ; ez dik bere hura beizik ikusten. Ez ote dituk bada ezagutzen ?
- Batita Gazteek ore ez ditek laborantzari lotu nahi... Eta gazte-rik ez den herri batean zer egin daiteke ?
- Gabriel Gazteek laborantzari ez lotu nahi, zergatik ? Funtsean ez da harritzeko, ikusi eta zer bizi dorpea eta frango-tan ezin jasana deranagun. Egun bakoitz, hanabi-hanshi-rur oren lanean, araberako irabazirik gabe, ez da segur bihotz altxagarri...

Benzaz zendako ez has, orain beretik auzokoekin serioski solasean, bai eta zendako ez aipa etxaldeen elgarreta-ratzea ?

Batita Bainaz hori ez ote da Sozialista eta Komunisten jokabidea ? Eta Komunistek gina hartzen baditek, denak galduko ditiauguk !

Gabriel Zerbait gelditzen bai zaizue ?

Batita Egia hori ere. Aspaldi hontan, aberatsen alderdia diaguk buruzagi eta guri segurik, ginuen izpia kendu daukuk... erranez : kasu ! Ezkerrekoak pasatzen ba dira denak hartuko douzkitzue. Eta guk hori sinetsi, beldurrez gure etxettoa gal "azkarren" alderdiari boza eman. Balio zian bai, hein huntara heltzeko ! Ai ! politika debru horrek zer buru-haustea emanarazten dauzkun !

Gabriel Zuhaurek diozu diruzaleen politikak galdu zaituela. Eta beraz, lehentxago aipatu dautuetan idoiek segida bat balu, ez ote laiteke guzien onerako ? Bizpalauen artean, edozein problema erreffiagorik argitzen da eta hari buruz aiseago laiteke borrokatzea.

Batita Bainaz gure kontrakoak, gu baino biziki azkarragoak dituk gildarrak heiek ditistek !

Gabriel Hori dautuet bida erran nahi. Hola segituz, xehe guziak kasatuak izanen gira.

Katalin Bainaz... nagok ez dukanez arrazointz. Gu honara etorri geroz, nork daki zenbat ote diren gure kasu berean ?...

Gabriel Hola segituz, ez dira laborari handi-nandiak baizik geldituko. Besteak, turixtendako bazterren antolatzen baratz-e-zain gisa edo lan-keta urrun joanak, herritik kanpo. Eta hori ; orainko politikak ez duelakoan jende xumea bizitzera utzi nahi ! Alta ez ote gira gehientsuak xume ? Bainaz ez gira onor enaitekotan. Izaitekotz : kasu !

(azken lerroa bururatzen denean, Pettan ezkerreko aldetik sartzen da)

KATALIN - BATITA - GABRIEL - PETTAN

Pettan Hep ! Aspaldiko partez badela harrabots barne hontan...

- Jostari To, bestea !...
- Batita Gabriel jin zaukuk ikustera...
- Pettan Zer diok, aspaldiko ?
- Gabriel Ontsa nauk, ontsa. Eta hi Pettan ?
- Pettan Ontsa izan behar to... Bainaz zer zinuten hoin gora mintzo ?
- Batita Gauza berri bat aipatzen zaukuian, Gabriel-ek...
- Pettan Zer da, ozkontzen ?
- Gabriel Ez, ez. Ez gintian hortaz ari...
- Pettan Ezkontzekots, ezkont hadi aski goiz, he ! Gero berantegi duk...
- Batita Laborantzaren geroaz giminan solas.
- Gabriel Erraiten nioien nola, laborantza salbatze, ber intresak ditugunek behar dugula elgarretaratu eta iraultza bideari lotu...
- Pettan Preseski, azken denbora honetan horrelako zerbait jin zaitak gogora. Bainaz...
- Gabriel Bainaz zer ?
- Pettan Beldur nauk to... Ezin ditaikena duk... Zorigaitzez...
- Gabriel Ezin ditaikena ? Laster anor emaiten duk hik !
- Pettan Bai, eta hik ere eman beharko.
- Katalin Hori bera erraiten nioian !
- Gabriel Zer konprenitzen dut ? (geldi) Ez duzue dolurik naski, humara otorririk ?
- Hiruek Zer derasak ?
- Gabriel Dolu bazinute, bestela mintza zintazkete...
- Katalin Dolu ala ez dolu, gure zortea hau duk. Zer erran dezakegu, zer egin dezakegu, exrantzarik gabe bizi gaituk gu...
- Gabriel Uste nuen alta, uste nuen. Eta uste dut oraino. Hori da nore sineste bakarra. Otoi, ez dezatazuela bihotzean histura bat ezar. Badakit luze eta idor izanen dela, urtacak beharko dira, baina orainko heriotze ixil eta gorde honek ez dezake gehiago iraun, ez dozake iraun ! Eta zuek lagundu behar nauzue.
- Batita Zer egin dezakogu ?

- Gabriel Hunara otorri aintzin, zede hori norbaitek aipatu balau-tzue, Betibil jaunari zuen etxea saltzeko partez, nahiiko ote zinutena auzoko batzuekin solastatu, elkartu, eta...
- Batita Denetarako prest gintian, hartu dugun bidea, uste diat, azkenetan azkena izan dela...
- Gabriel Eta berriz haste balitz ?
- Katalin Borriz haste balitz, gu, borriz sasian sart gintazkek !
- Pettan Ni segurik ez !
- Katalin Aise duk erraitea...
- Batita Gu prest izanik ere, auzokock ez balin ba dute nahi ? Eta uste diat ez dutela sekulan onartuko. Batzu, hiruetan-hogeい ta hanabost urtetan, oraino etxeko gider guzien jabe dituk, beren seno alabak nutil eta neskato dagotzila. Horrelako jendekin zer egin diteike ? Zer ?
- Katalin Eta bestalde, Betibil ez dagok lo !
- Gabriel Egia diozu Katalin, Betibil ez dago lo. Arrotz monatari handien kontra altxatu behar dugu, Betibiltarrak ahantzi gabe !...
- Pettan Bixtan duk baietz ! Zeren ohartzen nauk, lurruk erosten dituztenak, beti berak direla : dela nakinun, "entrepreneur", laborari handi edo arrotz aberats. Eta nola prezio ikaragarrriak pagatzen dituzten ; bizitzeko lurra behar du-gunk, gabo gelditu behar diagu...
- Gabriel Horra gauza importanta : behar ginikek heldu lurron partikatzearen kontrolatzera. Iur bat salgai delarik, herriko laborariek behar liketek deliberatu lurraron prezioa eta noren eskuetara joan behar lukeen. Zenbait lekutan jadanik scil horri hasiak dituk. Zeren, lurruk, populuaren lan-tresna bat izan behar dik, ez eta...
- Batita Bai, baina zendako lurra ; ezin biziz-egoiteko ? So egi-zak edozein prezioeri. Gure zuzena ere ez diagu...
- Gabriel Segur egia diozu Batita. Lurraren araberako irabazia ar-ditsi behar dugu eta horrotara heltzeko, borroka gaitezen, bakoitzak ikusten duen eta ahalik hobekiena.
- Pettan Beste gauza bat ere ba duk : laborari nintzalarik, uste nian, prezioak kariotzeen, langileen falta zela, beren greba ota ixtorioekin... Orain, langile nauk eta nahi dataie

sinets-arazi bizia goiti doala laborarieri gauzak kario pagatzen direlakoan. Hor ez duk hara ez hunatik : norbait baduk gutaz zinez baliatzen dena !

Gabriel Hortakotz bada, langile eta laborariekin elkartu behar dugu, elkar sustengatu, lagundi ; ezen ber-kasuan gira. Zapatuak gauden guziak bil gaitezen eta oldar!!!

Katalin Jainkoaz ez dadila odolik izen.

Gabriel Euskal laborari gazteak aski borrokatuko dira nean ezagutuko dute klaseen differentzia eta gure Herriaren zapalketa. Herriekin laborariek sendituko dugu orduan Hirietako langileen intres bertsuak ditugula. Betibil aldiz bietan etsaia dugut! Gure lanetik bizi giren guziak batuko girenean, ikusiko dugu nola hau den beharrezko lehen urhats haundia gure Euskal Herria libratzeko eta gu haren jabe izaiteko !

Pettan Gabriel, Gabriel, nahi niket borritz iraulden hasi... Gure landetako lurrek baditek freskatzearen beharra... Ildoz ildo, nahi ditiat itzuli. Eta badakik zer heldu zautan gogora ? Aldunate-n, Garraldako lurretan iraulden ari nintzalarik, batzutan, lurpetik zizari luze zuri batzu brabanarekin erditik nozten nintian, bi poziak gero odoletan alde guzietara jauzkikatzen ari uzten nintuela. Betibil eta bere lagunak, zizari luze zuri heiek bezala, egun batez, erditik nuztuko ditiagu !

(ortzick bortitz)

Katalin Ago ixilik, haurra !

Pettan Bai, eta nonbaitik etorritako jende aberats horien pala-zio horieri su enanen diagu. Ez ditek besterik nerezi.

Batita Laboraria suaren beldurrago duk Jainko-ren baino. Jestu hits horiek ez ditik onartuko eta hori eginez zer irabaz ginezake ?

Gabriel Populuari ebatsia izan zaion ahala bertiz eskuratu behar dugu behin betiko !

Katalin Badituk gu baino hunkiagoak. Gu, bizi joituk bederen...

Batita Bizi ? Zer derasazu ? Mugitzeko nonbertsoan, zu orain gi-belka ? Katalin, bizi gira, bizi, baina hil batzu bezala !

(gero ta gorago)

- Pettan Jalgi gaitezen henendik? Ez gira hemengoak gu... Goazen berriz Aldunatera !
- Gabriel Heriotzetik bizia dator. Ez zinezten arras ustelduak ! Zatozte nerekin, bazterrak ditzagun harro !
- Batita Berriz hasteko prest gaituk, baina ez lehen bezala egitekotan, ez huts beren erzeberritzeko, hil aipatu eta era-kutsi bidea hartzekotan bai ! Gure eta gure idurikoen zorte hitsak aski iraun dik... Aski iraun. Bizi nahi diagu bizi !
- Katalin (oihuz) Bizi nahi !
- Batita Gure herrian bizi. Gure etxeon bizi.
- Gabriel Laborantzatik bizi, Euskadi Sozialista batean !

#### LAUAK BETAN

(gero ta gorago)

(Katalin eta Batitak) Bizi bai bizi, bizi eta bizi

(Pettan) Gure etxeon bizi !

(Gabriel) Elgarretaraturik, laborantzatik bizi !

(Pettan) Bizi bai bizi

(Katalin eta Batita-k) Ez hil, ez hil !

(Pettan) Bizi

(Gabriel) Euskal Herrian nausi bizi

(Lauek) BIZI, BIZI, BIZI !!!

Daniel LANDART

1972 - 1973-KO neguan

- Pettan Jalgi gaitezen henendik? Ez gira henengoak gu... Goazen berriz Aldunatera !
- Gabriel Heriotzetik bizia dator. Ez zinezten arras ustelduak ! Zatozte nerekin, bazterrak ditzagun harro !
- Batita Berriz hasteko prest gaituk, baina ez lehen bezala egitekotan, ez huts beren erzeberritzeko, hil aipatu eta era-kutsi bidea hartzekotan bai ! Gure eta gure idurikoen zorte hitsak aski iraun dik... Aski iraun. Bizi nahi diagu bizi !
- Katalin (oihuz) Bizi nahi !
- Batita Gure herrian bizi. Gure etxeen bizi.
- Gabriel Laborantzatik bizi,

#### LAUAK BETAN

(gero ta gorago)

(Katalin eta Batitak) Bizi bai bizi, bizi eta bizi

(Pettan) Gure etxeen bizi !

(Gabriel) Elgarretaraturik, laborantzatik bizi !

(Pettan) Bizi bai bizi

(Katalin eta Batita-k) Ez hil, ez hil !

(Pettan) Bizi

(Gabriel) Euskal Herrian nausi bizi

(Lauek) BIZI, BIZI, BIZI !!!

Daniel LANDART

1972 .. 1973-KO neguan